HAZI FUNDAZIOARENTZAKO EUSKARA ETA EUSKALDUNTZE PLANERAKO AHOLKULARITZA ZERBITZUAK KONTRATATZEKO BALDINTZA TEKNIKOEN AGIRIA

Egin beharreko zerbitzuaren ezaugarriak eta baldintzak:

1. HAZI FUNDAZIOAn dagoen Euskalduntze Planaren jarraipena, birdiseinua (dagokionean) eta/edo bidefinizioa eta inplementazioa.

2. Kontratua indarrean dagoen urteetan Kudeaketa Planetako helburuak lantzeko eta betezeko beharrezko materiala prestatzea eta lantzea, eta entitateko gaiaren arduradunei aholkua eta laguntza teknikoa ematea horien jarraipena eta ebaluazioa egiteko, beharrzko metodologia eta baliabideak eskainiz.

3. Euskalduntze Planaren komunikazioa segurtatzeko behar den materiala prestatzea eta Planetik sortu daitezkeen komunikazio ekintzetan parte hartzea.

4. Jarraipen-txostenak egitea (urteko Kudeaketa Plana, memoria, jarraipenaren adierazleak…), erakundean eskatzen diren berezko metodologietan eta irizpideetean oinarrituta.

5. Erakundeko langileen motibazioa lantzeko bereziki laguntzea, eta erakundean euskarari buruz sentsibilizatzen eta instituzionalizatzen laguntzea.

6. Euskararen erabiliera sustatzea lanerako eta laneko harremanetarako tresna gisa, lan esparru bakoitzaren errealitatera egokitutako ekintzak eta zereginak garatuz.

7. Euskara ikasten ari diren langileak euskalduntzeko prozesuan laguntzea, babesa eta laguntza emanez mintza saioen bitartez, zalantzak argituz, prestakuntzako ibilbideei buruz aholkatuz eta diseinatuz norberaren beharren arabera...

8. Testu laburren itzulpenak egitea (gehienez ere bi orri), elkartean euskara idatziaren presentzia segurtatzen laguntzeko.

9. Euskara Batzordeko kideei aholkua ematea eta haiekin lankidetzan aritzea, proposamenak jasoz, landuz, jarraipena eginez eta ekintzak ebaluatuz, eta, behar izanez gero, ekintza zuzentzaileak ezarriz.

10. Sortuko diren lantaldeak dinamizatzea eta jarraipena egitea Euskalduntze Plana elementu parte hartzailea eta dinamikoa izan dadin eta, azken finean, aurreikusitako helburuak bete daitezen.

11. Elkartearen Hizkuntza Irizpideak edo euskararen inguruan hartutako beste edozein erabaki eta prozedura posbile martxan jartzen eta inplementatzen laguntzea.

12. Elkartearen Euskalduntze Planerako kanpoko dirulaguntzak zein laguntzak bilatzeaz eta kudeatzeaz arduratzea, dokumentazio teknikoa prestatuz eta koodrinatuz, bai aurkezpen fasean bai justifikazio fasean.

13. Elkartearekin lankidetzan aritzea ziurtagiriak lortzeko edozein prozesutan (Bikain, Bai Euskarari, etab.). Aholkularitza eta lankidetza hori dagokion ziurtagiria lortzeko beharrezko fase guztietan emango da.

14. HAZIko arduradunei aldizka informazioa ematea proiektuaren jarraipenari buruz.

15. Aste oroko arreta presentzialerako prestasuna HAZIko langile guztientzat, erakundearen hiru egoitzetan.

16. Lanaren jarraipenerako, urteko mugarri hauek betetzea:

    - Urteko Kudeaketa Plana:
        - ✓ Prestatzea (urteko 1. hirulekoan).
        - ✓ Planaren ebaluazioa (abendua)
    - Euskara Batzordearen aldizkako bileretan parte hartzea.

17. Gaiari buruzko edozein hobekuntza.

HAZI FUNDAZIOAk enpresa esleipendunari egin beharreko lanak gauzatu ahal izateko igortzen dizkion dokumentu guztiek izaera konfidentziala dute eta, horrenbestez, sekretu profesionalaren mende daude. Baimenik gabe erabili, aldatu, kopiatu, zabaldu, hirugarrenei laga edo erabiltzeak indarrean dagoen antolamendu juridikoa ezartzetik eratortzen diren erantzukizunak eragingo ditu.